


# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a

627. zenbakia



Datorren urteko udarako barruko igerilekua izango dena zabalik egotea da Udalaren asmoa.

**HIRIGINTZA**/ Lanek 5,1 milioi euroko aurrekontua dute eta urtebete barru amaituko dira

## Antzibarrek egingo ditu igerilekuko 2. faseko lanak

EDU MENDIBIL

Udalak Antzibar enpresari esleitu dizkio Agorrosingo kirolguneko 2. faseko lanak, 5.135.400 euroko aurrekontuarekin. Igerilekuko eraikina hurrengo urteko maiatzera egongo da amaituta eta igerilekua udan zabalik izatea da Udalaren asmoa.

Azpeitiko Antzibar enpresak joan den irailetik dihardu Agorrosingo kirolgunean lanean. Orain, proiektuaren bigarren fasea esleitu dio Udalak. Aurrekontua 5.135.400 eurokoa da eta Antzibarrek 2006ko maiatzera lanak amaitzeko konpromisoa hartu du. Udaleko iturriek aditzera eman dutenez, datorren astean hasiko dituzte bigarren faseko lanak.

Lanak ondo badoaz, estalitako bi igerileku egongo dira ger-

tu 2006ko maiatzerako; horietako bat 21x25 m neurrikoa izango da eta bestea, berriz, 16,5x6,5 m ingurukoa da, haurrek-eta erabili ahal izango dutena. Aldagelak, gimnasioa eta frontoi txiki bat ere amaituta izango dira hurrengo urterako.

### AZKEN FASEA GERATUKO DA GERO

Behin ekipamendua egin eta gero, datorren urteko ekainerako igerilekua zabalik egotea da Udalaren asmoa.

*Estalitako bi igerileku hurrengo urteko udan zabalik izatea da Udalaren asmoa*

Azken faserako geratuko da kanpoko igerileku berria. Proiektuaren arabera, neguan estalkia izango duen jolas-igerilekua izango da. Inguruan, berriz, 2.000 m<sup>2</sup> inguruko berdegunea izango du. Alvaro Amezaga eta Jorge Muntaniola dira kirolgune berriko proiektuaren egileak.

2004-2007 aldiko Inbertsioen Aparteko Planaren barruan, Diputazioak 2.103.000 euroko dirulaguntza eman dio Bergarako Udalari. 2006ko maiatza bitarteko lanen aurrekontua 7,1 milioi euro da. Udalak Antzibarri adjudikatu zizkion hasierako lanak, bi milioi eurotan, hain zuzen. Instalazio zaharren eraikina bota ondoren, eraikin berriaren egitura eta ur zikinen hoditeria jartzeaz arduratu da Antzibar enpresa orain arte. Joan den urteko irailean hasi zituzten kirolgune berriko lanak.

## Udalak salatu egin du Gabilondoren kontrako erasoak

BERRIGARA

Udal Gobernuak salatu egin du domeka goizaldean Felix Gabilondo enpresak jasandako atentatua. Murinondoko enpresako zink deposituan jarritako leherkari batek domekan, 03:40ak aldera, eztanda egin ondoren, 15.000 litro produktu toxiko isuri ziren errepidera eta Deba ibaira. Alkateak gogor gaitzesi du gertatutakoa: "Ekintza terrorista hori sala-

tu nahi dugu Udaletik. Zorionez, ez da kalte pertsonalik egon, baina sustoa handia izan da".

Atentatuaren ondorioz, enpresako zaintzailea, bi ertzain eta bost erizain atentatu behar izan zituzten, arnasketa arazoak zirela-eta. Hala ere, alta eman diete guztiei. ETA erakundeari egotzi diote atentatua. Beasain, Elgoibar eta Sorluzeko enpresen aurkako erasoak izan ziren asteburuan baita.



Murinondo auzoa alerta-egoeran egon zen gas isurketaren ondorioz.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

## LABUR

### 1942an jaiotako bergararrek afaria egingo dute datorren ekainaren 4an

1942an jaiotako bergararrek afaria izango dute ekainaren 4an, Azpeitxi jatetxean. Aurretik meza izango da Santa Marinan, 19:00etan.

Izenematea (15 euro) Mizpildi okindegian, Edel tapiz dendan edo Azpeitxi jatetxean bertan.

### Barnetegietara edota Udako Euskal Unibertsitatera joateko laguntzak

Udan barnetegiren batera euskara ikastera edota Udako Euskal Unibertsitatera doazenek diru laguntza eska dezakete Udaleko Euskara Zerbitzuan. Argibideak 943 77 91 66 telefonoan edota [www.bergara.es/Udala/Antolaketa/Euskara](http://www.bergara.es/Udala/Antolaketa/Euskara) helbidean.

### Loreen ikastaroa maiatzaren 24tik 27ra bitartean BEKE taldearen eskutik

Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteak loreen gaineko ikastaroa antolatu du. Eskolak maiatzaren 24tik 27ra izango dira, 15:00etatik 16:30era. Izenemateak 12 euro balio du. Argibideak 625 70 78 92 telefono zenbakian.

# Eguraldi kaskarra, baina jendea girotuta Pazkoetako astelehen eta martitzenean


BERRIGARA

Eguraldi kaskarrari aurre egin zioten bergararrek Pazkoetako azken bi egunetan. Jendetzarik ez da ibili aurten herriko jaietan, baina ibili direnek majo girotu dituzte han eta hemen izan diren ekitaldiak. Koadrilen Egunari erantzun bikaina eman zioten adin guztietako herritarrek. Sekulako ikusmina astelehen goizean antolatutako jokoekin eta primerako giroa ondorengo herri bazkarian: 350 lagun elkartu ziren. Zaparrada ona jaso zuten paella erraldoia dastatu ondoren. Jarraian jokoak izan ziren eta Txokokuak taldea izan zen irabazlea. Bestalde, Arantzazu Agirre eta Eñaut Uriarte izendatu zituzten Miss eta Mister Jator.

Martitzenean, Haurren Egunean, euria eta hotza izan genituen protagonista nagusiak. Hala ere, izan ziren jai giroari eutsi izan ziotenak. Esan bezala, jendetzarik ez da ibili, baina jaiekin ederki asko gozatu dute askok.

Udaltzaingoak BERRIGARARI adierazitakoaren arabera, ez da aparteko nobedaderik izan, kalteren batzuk izan diren arren.

Martitzenean, Bitorianatxo agurtu ondoren, haren zain geratu dira asko eta asko...



Txerri harrapatzeak sekulako ikusmina piztu zuen. Azkarrena txerria harrapatzen Naiara Beistegi eta Jasone Larrañaga izan ziren. Irudian Gaizka De Miguel, txerria harrapatzeko ahaleginetan.



Koadrilen egunean 350 lagun inguru elkartu ziren herri bazkarian. Giro ederrean, eta zenbait unetan euripean, bapo bazkaldu zuten.



Incansables txarangakoak klasiko bihurtu dira Pazkoetan. Azken 25 urteotan ohiko bisitariak ditugu.



Eñaut Uriartek irabazi zuen asto lasterketa. Ondoa, Aritz Alustiza, Arantzazu Agirre eta Eñaut Uriarte izan ziren Miss eta Mister Jator.



Mikel Saiz eta Ainhoa Alberdi GOITBko lankideak Igor Iñurrategi elkarriketatzen, astelehen eguerdian.



1,70 m diametroko paellera erabili zuen Zaragozatik etorritako bikoteak. 40 kilo arroz eta 70 kilo haragi eta marisko zeuzkan paellak.



Lau partaide izan ziren baltsa jaitzieran. Ainhoa Alonso, Nerea Mada-riaga eta Amaia Mendibilen txalupak irabazi zuen proba.



Haurrek barrakekin gozatzeko aukera izan dute, martitzenean giroak lagundu ez zuen arren.



Betizuko gaztetxoek dantzan jarri zituzten haurrak eta nagusiak, martitzen arratsaldean.

ELKARRIZKETA

OLATZ OLASO/JARDUN ELKARTEKO PRESIDENTEA

# “Euskararen erabilera bultzatzeko lanean jarraituko dugu, erronka berriei aurre eginez”

EDU MENDIBIL

Jardun euskara elkarte sortu zenetik 15 urte betetzen dira egunotan. Bergaran euskararen erabilera bultzatzeko helburuarekin sortutako elkarteak lan horretan dirau, 563 bazkideren babesarekin. Olatz Olaso soziologoa (28 urte) dugu Jarduneko presidentea eta harekin egin dugu berba.

**Zeintzuk izan dira Jardunen lorpen nagusiak 15 urte hauetan?**

Barrura begira, elkartearen sendotu egin dela esango nuke. Urtean zehar bermatzen den dinamika bat sortu da eta, esaterako, hor dago haur eta gazteen taldea, sustari sendoak dituena. Lorpenak identifikatzea ez da horren erraza: hala ere, gazte jendearen artean euskararen erabilera nahiko altua da, eta Jardunek ere izango zuen zerikusia horretan, beste eragile askorekin batera. Bestalde, BERRIGARA Jardunen eskutik jaio zen eta bere ibilbide propioa dauka hor. Hor ere aurreapauso handia egin da, lehen jendeak ez zeukalako horrenbeste ohitura euskaraz irakurtzeko.

**Jardunen helburuek berdinak izaten jarraitzen dute?**

Maiatzaren 28an, besteak beste, gai horren gaineko mintegia egingo dugu, hartu behar dugun bidea zehazteko. Argi dago egoera aldatu bada, helburuak ere aldatuz joan behar direla. Dena den, euskararen erabilera bultzatzeko lanean jarraituko dugu, erronka berriei aurre eginez. Etorkinak dira erronketako bat: orain, egunero, etorkinen seme-alabek beste pare bat orduz euskaraz jarduteko aukera daukate gurekin. Erronkak datozten heinean, erantzun bat eman behar diegu, euskararekiko sentsibilizazioa piztuz, komertzio mailan, gazteen artean, nagusi



*Etorkinak gurera ekarri behar ditugu, beldur barik, euskara erakargarri eginez*

sien artean... Kolektibo guztietara iristea da gure helburua.

**Etorkin nagusiak erakartzea lortu duzue?**

Etorkin nagusiek gaztelania ikasiko dute ziur. Beraientzat euskara erakargarri egitea lortu behar dugu. Herriko eskoletan D eredua da nagusi eta ikusten badute euren seme-alabek euskaraz egiten dutela, beraiek ere animatuko dira beharbada. Gurea ekarri behar ditugu, beldur barik, euskara erakargarri eginez, aberasten duen zerbait bezala aurkeztuz.

**Zein da euskararen egoera Bergaran gaur?**

Euskaldun kopuruari begiratuta, nahiko ona. Ezagutza maila handia da, Antzuolaren parekoa-edo. Hala ere, erabilera (%35 inguru) hobetu daiteke, eta horretara jo behar dugu. Gutxienez euskaldunok gure artean euskara erabiltzea lortzea ez litzateke lorpen txikia.

**Euskalgintzan ari zareten taldeen artean badago elkarlanik?**

Bai, Euskararen Egunerako elkartu ginen AEK, EHE eta Jardun eta orain komunak diren helburuak eta ekintzak aztertzen gabilta. Bestalde, Udaleko Euskara batzordean ere hartzen du parte Jardunek.

**Kontseiluak administrazioan atzerapausoak eman direla salatu du...**

Gizarteari begira administrazioak ispilua izan behar du, han egiten denak gizartean eragin zuzena baitauka.

## Urteurrena ospatzeko ekitaldiak

**MAIATZAK 25, eguaztena**

**20:00:** Mahai-ingurua: “Zeintzuk izango dira euskara elkarte baten erronkak hurrengo 15 urteetan?”. Partaideak: Julen Arexolaleiba eta Iñaki Arruti. Kultura-etxean.

**MAIATZAK 26, eguena**

**17:00:** Jolasleku ibiltaria Munibe plazan.  
**19:30:** “Gizon ustelgaitza” bakarriketa, Joxe Mari Carrereren eskutik. Zabalotegiko aretoan.

**MAIATZAK 27, egubakoitza**

**19:00:** Urte amaierako jaialdia. Zabalotegin.

**MAIATZAK 28, zapatua**

**10:00:** Mintegia: “Gaur egungo egoeraren diagnostikoa eta hurrengo urteetarako helburuak eta erronkak”. Kultura-etxean.

**14:30:** Bazkaria.

**23:00:** Kontzertua: Azkaiter Pelox, Matxura eta Kerobia. Bergarako gaztetxean.

Mintegian parte hartu nahi duenak Jardun elkartera deitu dezake (943 76 36 61). Bazkari-rako txartelak (20 euro) Jarduneko egoitzan, Errotalde jauregian daude salgai.

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46    Zubillaga 10  
BERGARA    OÑATI  
943 76 45 53    943 78 24 13

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

**TELEIXA  
BILTEGIAK**

**Eraikuntza  
materialak**

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

**PILOTA/** 22 urtetik azpikoetan Apezetxeak eta Diez de Ultzurruneak jantzi zuten txapela

# Diazek eta Okiñenak irabazi dute Bergara Hiria txapelketa

EDU MENDIBIL

Diazek eta Okiñenak osatutako bikoteak eskuratu du Bergara Hiria Txapelketa, astelehenean, nagusien mailako finalean, Berasaluze eta Apraiz gaudituz ondoren, 22-13. 22 urtetik azpikoaren finalean emaitza bera izan zen, Apezetxea eta Diez de Ultzurrunen alde.

Sarrera bikaina izan zen astelehenean Udal Pilotalekuan eta hara joandako pilotazaleek tanto bikainak ikusteko aukera izan zuten. Esan bezala, 22 urtetik azpikoaren mailan, Apezetxeak eta Diez de Ultzurruneak 22-13 irabazi zieten Renobales eta Iraolari. Apezetxea goizuetarra izan zen finaleko onena eta berak eraman zuen pilotari onenari zegokion trofeoa.

Nagusien mailan, Okiñena iruindarra bigarren aldiz heldu zen finalera: orain bi urte, Irujo-ekin bikotea osatuz, Eguzkitza eta Erauskinen aurka galdu zuen. Astelehenean, txapela jantzeaz gain, pilotari onenaren saria jaso zuen, zaleen txaloen artean. Diaz bere bikotekideak egin zuen txapelketako azken tantoa, bikaina benetan, txapelketari amaiera ezin hobea emanez. Antolatzaileak pozik, pilotariak erakutsitako mailarekin eta txapelketan



Argazkian, finaletako protagonistak jasotako trofeoekin, Udaleko zein antolakuntzako ordezkariekin batera.

zehar Udal Pilotalekuan izandako ikusle kopuruarekin

## HERRI ARTEKO TXAPELKETA GAUR

Bestalde, Herri Arteko Txapelketaren barruan, Bergarak Lazkaoaren aurka neurtuko ditu indarrak gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Joaneko

*Okiñenak eta Apezetxeak jasozituzten pilotari onenen trofeoak*

partiduetan lazkaotarrak nagusitu ziren, 2-1. Kadete eta gazte mailetan, emaitza berarekin nagusitu ziren: 22-16. Senior mailan, berriz, Bergarak 7-22 irabazi zuen. Lazkao gaudituzen badute, Zumarraga eta Urnieta arteko kanporaketako irabazlearen aurka jokatu du Bergarak.

## LABUR

### Ipintzako futbol txapelketa abian da


Ipintzako txapelketa abian da dagoeneko. Bihar, zapatua, beterekoen mailako partidua jokatuko dira, 09:00etan hasita. Ezinleike-Mongatxurak, Betikuak-Arloteak, Mongatxurak-Ugarrixa, A Ze Flaxa-La Juve eta Bildurbarek-Pub Irish partidua jokatuko dira.

### Markina, bosgarren Espainiako Txapelketan

Fernando Markinak bosgarren postua eskuratu zuen beterekoen mailako Espainiako Arku Tiroketa txapelketan, Gasteizen. 1.292 puntu lortu zituen Markinak. Bihar, zapatua, Gipuzkoako Txapelketan hartuko du parte, Donostian.

### Nesken futbol partidua asteburuan

Aste bukaeran bi futbol partidu jokatuko dira Ipintzan: bihar, zapatua, senior mailako nesken taldeak Ostadar hartuko du, 11:30ean; domekan, berriz, futbol-8ko nesken taldeak Zumaia-koen aurka jokatu du, 16:30ean.



### Karateka gaztetxoek emaitza onak lortu zituzten Eibarren

Bergarako karateka gaztetxoak onenen artean izan genituen aurreko astean Eibarren jokatuako txapelketan. Aurre benjamin mailan Ibai Linazisoro, Julen Rodriguez, Joel Gomez eta Inazio Dulanto; benjamin mailan, mutiletan, Egoi Garcia, Borja Alcantara, Xabier Inurrieta eta Josu Alonso nabarmendu ziren eta nesketan, Miren Azkarate, Sara Manzano, Maialen Goirizelaia eta Usue Azpiazu; alebin mailan mutilen artean Jon Urkia bigarren sailkatu zen Mikel Aginagalde, Eneko Cruz eta Aitor De Benitoren aurretik; nesketan Haizea Inarrak lehen postua lortu zuen eta Jon Agirrezabal, Matxalen Zezeaga eta Alazne Murgizu sailkatu ziren jarraian; eta, azkenik, infantil mailan Julen Aranak lehen postua lortu zuen eta Pablo Elkororibe bigarrena izan zen.

## Ariznoako fin Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketan

E.M.

Ariznoako gimnastek sasoian direla erakutsi zuten Gipuzkoako Eskola Arteko A mailako txapelketan: soka eta uztaiarekin, infantil mailan, Lide Toledo lehena izan zen eta ondoren Jurdana Pildain (3.a), Uxue Toledo (5.a) eta Ainara Amoros (6.a) sailkatu ziren; kadete mailan, Eider Carrasco bigarrena izan zen uztai eta mazoekin; mazoekin

eta zintarekin, berriz, gazte mailan, Virginia Odriozola 2.a izan zen, Maialen Legorburu (3.a), Irati Arteaga, (5.a) eta Izargi Vegaren (10.a) aurretik.

Taldeka, Ariznoa Ipintzak lehen postua lortu zuen uztaiarekin, infantil mailan; Mariaren Lagundiko gimnastak onenak izan ziren kadete mailan uztai eta sokarekin eta gazte mailako Ariznoako taldekoak lehenak izan ziren uztai eta mazoekin.



Ariznoako gimnastek emaitza onak lortu zituzten Labegarietan jokatuako proban.

**DANTZAK**/ Bergarako Gazte Alai taldeak hartuko du parte jaialdian, beste zortzi talderekin batera

# Haurren Euskal Jaia ospatzeko 400 bat dantzari elkartuko dira domekan, Bergaran

E.M.

**Haurren Euskal Jaiaren 32. ekitaldia ospatzeko da domekan, maiatzaren 22an. Ohikoa den bezala, Euskal Herri osotik etorritako dantzari mordoak izango dugu bisitari. Egun osoan zehar euskal dantzeekin gozatzeko aukera izango dugu.**

Udalaren eta Abarka taldearen laguntzaz, Xamatx dantza taldeak antolatu du Bergarako 32. Haurren Euskal Jaia. Antolatuzaileek aditzera eman dutenez, 400 bat dantzari bisitari izango ditugu domekan, goizetik. Besteak beste, Soroluzeko Urrats, Oñatiko Oinatz, Aretxabaletako Loramendi, Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu taldeak, Urretxuko Lurra, Oreretako Ereintza eta Gorlizko Aratz taldeak etorriko dira. Bergarari dagokionez, Gazte Alai taldeak hartuko dute parte domekako jaialdian. Dantzari gaztetxoek

eskutik, programa zabala izango da goizetik.

## KALEETAN BARRENA DANTZAN

Goizean, 10:30ean, Seminarioko patioan elkartuko dira dantzari guztiak eta ondoren, 11:30ean, alkatē eta alkatesa txikiek ongi etorria egingo diete San Martin plazan. Plazako harreraren ondoren, talde guztiak herrian zehar ibiliko dira dantzan, bazkal ordu arte. Aurten ere herriko elkarre gastronomikoez laguntza bikaina eskaini diete antolatzaileei eta Bergarara etorritako umeak hartuko dituzte bazkaltzeko.

Arratsaldean, 17:00etan, berriro ere talde guztiak San Martin plazan elkartuko dira eta han izango da eguneko azken dantza saioa, talde guztien parte-hartzearekin. Ondoren, 18:00etan, poniak eta zezentxoak egongo dira.

Xamatzeko ordezkariak pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin eta dei egiten diete herriko dantzazale guztiei domekako jaiari murgiltzeko.



Kaleetan barrena ibiliko dira dantzari gaztetxoak goizean. Arratsaldean, berri, saioa eskainiko dute San Martin plazan.

## Gaztetxoei zuzendutako pintura ikastaroa udan, Bearteko egoitzan

E.M.

Beart herriko artisten elkarteak 6-15 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako pintura eta marrazketa ikastaroa iragarri du udarako. Pintzelarekin lehen urratsak eman ahal izango dituzte gaztetxoek. Irakaslea Mayra Jimenez izango da.

Eskolak uztailaren 4tik 29ra izango dira, goizez, 10:15etik 12:15era. Izenemateak 55 euro balio du eta ondoko telefonoetan egin daiteke: 653 71 53 82 (Mayra), Oihana (665 70 31 75) edo Maite (635 71 32 69).

Aurtengo ikasturtean 25 bat gaztetxo ibili dira zapatu goizeko klaseetan.



OIHANA GARITANO

Eskolak Beart elkarteak Bolun duen egoitzan izango dira.

## LABUR

### Argazkigintza estereostopikoaren emanaldia maiatzaren 27an, Jose Luis Feoren eskutik

Pol-Pol Argazki Taldeko Jose Luis Feo argazkilaria eskutik, argazkigintza estereostopikoaren (3D) proiektzioa izango da hurrengo egubakoitzean, maiatzaren 27an, Zabalotegiko aretoan, 20:30ean.

Argazkigintza estereostopikoa irudi bat bistartzeko bestelako modu bat da. Sortzen den efektu optikoa leihotik kanpora begiratzen denean sortzen den efektuaren antzekoa da. Argazkigintza mota hori lantzen aitzindarietako bat da Jose Luis Feo.

### Roberto Izagirrek irabazi du Kilometroak-en ekitaldien barne deitutako literatur lehiaketa

Roberto Izagirrek irabazi du Kilometroak 2005eko literatur lehiaketa. Eibarren jaioa, Bergaran bizi eta Bergarako udaletxean egiten du lan Izagirrek. Partaideek Fernando Morillo idazleak hasitako *Dragoiaren orroa* kontakizuna bukatu beharra zuten.

Hamar lan jaso zituzten, eta Fernando Morillok, Ana Toledo Deustuko Unibertsitateko ordezkariak eta Arantza Baltzategi antolatzaileak osatutako epaimahaiak Izagirre saritzea erabaki zuten. Sari banaketa ekainaren 17an egingo dute, Aretxabaletan.

# ETXE BERRIA


## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

E, TXO!

GUREGAIK/ AZTERKETAK

**DIRU LAGUNTZAK GAZTERIA ESPARRUAN JARDUTEKO**

Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak ematen ditu gazteria eta gizarte esparruetako ekintzetan parte hartzen dutenendako. Laguntza ekonomikoak eskatzeko epea irekita dago eta ekainaren 3an amaituko da. Eskariak aurkeztu behar dira Kultura Sailaren Lurralde Zerbitzuetan, dagokion dokumentazioarekin batera.

**AUZOLANDEGIAK ETORKINEKIN DONOSTIAN**

Caritasek auzolandegiak antolatu ditu uztailean, abuztuan eta irailean etorkinekin lan egiteko. Donostiako Intxaurren do auzoan dagoen harrera-etxean egin beharko dute lan 20 urtetik gorako gazteek udan. Auzolandegi hauen gaineko informazioa nahi izanez gero deitu: 943 29 10 40 (Hilari).

**KULTURA ETA ARTE PRESTAKUNTZARAKO BEKAK**

Kultura eta arte prestakuntzan espezializatze berrak emango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Musika, dantza, antzerkia, zaharberri-tzea, kultura-kudeaketa eta ikus-arteetan jarduten dutenek jasoko dituzte diru laguntzak. Eskariak aurkezteko epea maiatzaren 25ean amaituko da. Informazio gehiago nahi izanez gero honako telefonora deitu behar da: 943 11 28 91 (Arantza Olaskoaga).

# Unibertsitateko hautaprobak egoki egiteko hainbat aholku ikasleendako

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Azterketa sasoiaren murgilduta daude ikasleak. Batzuek batxilergoan, selektibitateko prestatzen besteak eta unibertsitatean ere aurki hasiko dira. Hona hemen hainbat aholku azterketetarako.**

Batxilergoko azterketetan dihardutenek laster izango dute selektibitateko azterketa egiteko aukera; azken urtea egin dutenek, aurtun, ekainaren 8, 9 eta 10ean; unibertsitatean ari direnek ere egin zuten bere garaian.

Hainbat aholku emango ditugu unibertsitatean sartzeko hautapropa egoki burutzeko.

**LASAITASUNA ETA ZUHURTZIA**

Edozein azterketetan, baina selektibitatean areago, galderak lasai eta poliki irakurri behar dira, benetan zer erantzun behar dugun jakiteko. Selektibitatean bi galdera multzo izaten dira bakarra aukeratzeko, beraz, hobetoen dakigun gaia aukeratzeko dugu.

Zalantzaren bat izanez gero azterketaren aurretik galdetu irakasleari. Badira batzuk azterketan zehar ere galderei erantzuteko prest azaltzen direnak, baina ez da beti horrela izaten.

Azterketa egiteko daukagun denbora ongi neurtzea komeni da. Horretarako onena da ordularia parean izatea.

Galdera bat bera ere ez badakizu ez urduri ipini. Gaiarekin zerikusia duen zerbait idatzi. Okerrena orria zuri lagatzea da; emaitza zero litzateke eta horri buelta ematea oso zaila da.



Batxilergoko ikasketak amaitu dituzten ikasleek egin beharko dute Unibertsitatean Sartzeko Hautapropa.

## Zalantzaren bat izanez gero azterketaren aurretik galdetu irakasleari

Alderantziz, erantzuna baldin badakizu, idatzi aurretik ongi pentsatu paperean ipini beharrekoa. Irakasleak azterketa asko irakurri behar ditu, beraz, hasieratik erakartzea komeni da. Ongi

dakizuna idatzi hasieran, ondoren gainontzeko guztia eta amaieran egin laburpena ideiarik garrantzitsuenekin.


Beti ere gaitik ez gehiegi urrundu. Gai orokorra zein den ikusi eta galdetzen dizuten gauza zehatz horri erantzun ondoren.

Itxurak badu garrantzia. Letra txukunez idatzi eta esaldi argiak egin, irakaslearen irakurketa erraztuz. Ez aurkeztu zirriborrotako azterketarik.

Ortografia akatsek emaitzetan eragina dute; hitz bat zehatz nola idazten den ez badakizu sinonimoak erabili.

## Letra txukunez idatzi eta ez aurkeztu inoiz zirriborrotako azterketarik

Orain benetako uneari itxaron. Ahaztu urduritasunak eta erakutsi ikasitako dena; ahalik eta ondoen egin azterketa, eta zorte on hautapropa egiteko orduan.

**TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez**


Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
Oftalmología Clínica

# www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

MINGAINARITIRAKA



## Jesus Iglesias

DEPOR TABERNAKOA

Hamabost urte daramatza Jesusek Depor tabernan lanean, hogeitun urte zituenetik, hain zuzen ere. Taberna goitik behera berritu dute orain, eta kontu horrek burukomin batzuk eman dizkion arren, oso pozik dago Jesus lantoki berriarekin.

### Jaietako edari arrakastatsuenak?

Gehienbat, garagardoa edaten du jendeak, baina, Beefeater ginebrarekin egindako konbinatuak ere asko edaten ditu jendeak. **Kirola eta taberna zelan lotzen dira?**

Kirol elkarteendako diru iturria da taberna bat, eta Bergarakoaren kasuan ere horrelaxe da.

### Parrandarako gústuko edari bat?

Egia esan, ez dut parranda asko egiten, baina, irteten naizenean, garagardoa edo gintonic-ak hartzen ditut.

### Biharamuna pasatzeko modu egokiena?

Salda bero on bat edo ura edatea.

### Futbol zalea izango zara, ezta?

Bai, asko gustatzen zait futbola, baina, baita gainerako kirol gehienak ere: txirrindularitza, eskia...

### Gustuko futbol jokalaririk bat?

Deco eta Ronaldinho.

### Taberna berritua zabaldu duzue oraintxe. Zer moduz doa?

Ondo, baina, egia esan, nahikoa estresatuta ibili gara. Justuan zabaldu ahal izan dugu jaiefarako.

### Jendeari gustatu zaio?

Bai; jende guztiak esaten digu bazeukala berrikuntza baten beharra eta oso ondo geratu dela.

### Tabernari on batek zer behar du?

Batez ere, pazientzia; bestetik, jendearekin atsegina izatea ere oso garrantzitsua da.

### Asteburu baterako plan ideala?

Lehenengo, jai hartzea; gero, adibidez, bainuetxe batera joatea eta familiarekin egotea.

### Bergarako txoko politena?

Gorla aldea asko gustatzen zait.

### Oporretarako toki bat?

Costa Rica; behin egon nintzen, eta gustura itzuliko nintzateke.

### Amets bat?

Loteria tokatzea; astero jokatzen dut eta sekula ez dut ezertxo ere irabazi.

AINZANE IRIZAR

## KANPOTARRAK BERGARAN

### MARTA SILVA

43 URTE / KOLONBIARRA / ORAIN DELA HAMAR URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

## “Hasieran oso zakarrak iruditu zitzaizkidan euskaldunak; oso ozen berba egiten duzue”

AINZANE IRIZAR

**B**itxia da, benetan, zelan iritsi zen Marta Bergarara bizi izatera. 1991n etorri zen lehenengo aldiz Kolonbiatik; Aretxabaletara etorri zen bizi izatera: “Kolonbian Aretxabaletako apaiz bat zegoen misiolari; hark behin eta berriz esaten zidan hona etorri beharko nukeela ikastera, eta halaxe egin nuen”, gogoratzen du Martak.

Arte Ederretako ikasketak egin zituen Martak Kolonbian eta Madrilen ikasketekin jarraitu nahi zuen; horrela, Aretxabaletako misiolariaren senitartekoek euren etxean hartu zuten Marta. Handik, Madrileren joan zen; lau bat urtez egon zen Madrilen, baina, joan-etorri ugari egiten zituen Aretxabaletara.

*“Egia esan, erosotasunagatik ez dut euskara ikasi; oraintxe hasteko asmoa daukat”*

“Autobusez egiten nituen joan-etorriak, eta hantxe ezagutu nuen gaur nire senarra dena. Ni Aretxabaletara nentorren, Madrilen ikasten egon eta gero; bera, berriz, Brasildik zetorren. Autobusean elkar ezagutu, eta begira, orain ezkondata gaude eta bi ume ditugu”, azaldu digu.

Gaur egun, janari denda baten dihardu lanean, eta oso gustura bizi da Bergaran; “Kolonbian edo

Bergaran bizi, aukeran emango balidate, Bergara aukeratuko nuke, zalantza barik”, diosku.

Kolonbian, baina, gustuko lanbidea zuen; pintorea zen eta hortik ateratzen zuen bizimodua. “Hemen ezinezkoa da horrelakorik; dena dela, azkenaldian muralak egiten nabil: ile-apaindegi baten, umeen logelatan, egongelatan eta abar egiten ditut. Nire helburua da hortik bizimodua ateratzea”.

### JENDE ZAKARRA

Martari ez zitzaion asko kostatu hemengo bizimodura egokitzea, baina, hasierako inpresioa zelakoa izan zen kontatu digu: “Korrika Kolonbiara itzultzeko gogoia sartu zitzaidan; gero, segituan konturatu nintzen oso jende ona dela euskaldun jendea, baina, berba egiterakoan, oso zakarrak zarete; ozen berba egiten duzue, eta niri iruditzen zitzaizkidan jende guztia haserre zegoela”. Jendea ezagutzea eta, bereziki, berba egitea asko gustatzen zaio Martari; horri esker, segituan moldatu zen hona.

Bi semeek ondo ikasi dute euskara; berak ere badauka horretarako asmoa: “Egia esan, orain arte ez dut ikasi euskara, erosotasunagatik; gaztelania jakinda ere ondo moldatzen naizenez, bada, oso eroso ibili izan naiz. Baina uste dut hemen bizi izateko euskara ikasi behar dudala eta oraintxe ikasten hasteko asmoa daukat. Gainera, esan didate domeketan gureta euskara eskolak antolatuta dituztela; hortaz, orain ez daukat aitzakiarik, denbora faltagatik”.

Orain dela hiru urtera arte, urtero joan izan da Kolonbiara; iaz, Estatu Batuetan egon ziren, han ere senitartekoak ditu eta. Gurasoak eta anai-arrebak ere etorri izan zaizkie bisitan, baina, orain, geroago eta arazo handiagoak dituzte: “Seme zaharrenak jaunartzea egin behar zuela eta, nire aitak etortzeko asmoa zuen, baina, ez diote laga; pena handia hartu dugu”.




## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



Tel.: 676 952 966  
680 641 401



- PODAK, TEILATUAK, TXIMINIAK, KANALIOIAK, BAJANTEAK, FATXADAK ETA PATIOAK.
- ANDAMIORIK GABEKO LANAK.



## Ion Murgizu margoak

Margolanak orokorrean  
Margo dekoratiboa  
Margo industrialia

Esozia etorbidea 24, 2. behea  
SORALUZE  
943 75 13 24 / 652 777 030  
iion@euskalnet.net

**BONOFOTOA**



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da XVI. mendeko ermita honen izena eta zein auzotan dago?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**EDEN GONZALEZ** endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Eden!  
Galderaren erantzun zuzena: **Bidekurutzeta kalea.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA: .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Carretilla zainzuriak**

500 g-ko lata (9/12) + Musa maionesa doan

**4,99 €**

830 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**ERRETRATUZAHARRA**

ELGETA

**Ozkarbi elkartearen eguna**

**D**omeka honetan, maiatzaren 22an, ospatuko dute Ozkarbiko bazkideek elkartearen eguna. Aspaldiko ohitura da jai hau egitea maiatzeko laugarren domekan, eta aurten ere ahalik eta bazkide gehien elkartzea da asmoa.

Oraingoan zuen artera ekarri dugun argazkia ere jai horren lekuko da.

Argazkia orain dela 17 urte, maiatzean, ateratakoa da, hain zuzen ere. Bazkaldu ostean mahaiaren inguruko hizketaldian jardun zuten erretratukoek eta argazkilaria abil ibili zen denak barrez harrapatzeko.

Berriketaldiaren ostean, dantzarako aukera ere izan zuten bazkaltiarrek; aurtengoan ere soinu alaitutako dantzaldia izango



dela aurreratu digute Ozkarbi-ko zuzendaritza batzordetik.

Elgetan jendea euren jaiotetxearen izenez ezagutzen du askok eta askok. Guk ere horrela emango dizkizuegu argazkian agertzen direnen izenak.

Mahaiaren ezkerreko aldean, aurretik atzera jarrita: Ikerterreko Felix, Albitxuko Blas, Santiago Ormaetxea, Albitxuko

Pedro eta Toki Alaiko Luzio, pandero jotzailea.

Eskuman, berriz, Joakin Gaztesi, Surrako Jose Luis, Zabaletako Julian, Larrabilgo Jose eta atzean, ezkutu antzean, Arantzabal soinu jotzailea, musika aparatua gertatzen.

**Argazkia:** Dionisia Arantzeta

**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoriz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixan elkartera.

**FARMAZIENTXANDA**

- EGUBAKOITZA, 20**  
GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05
- ZAPATUA, 21**  
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- DOMEKA, 22**  
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 23**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- MARTITZENA, 24**  
CAMACHO. Oxirondo 4 . . . 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 25**  
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87
- EGUENA, 26**  
GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05

**TELEFONOAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
- Begarako Udaltzaingoa . . 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa . 943 76 62 46
- Ertzaintza . . . . . 943 53 47 20
- Osasun etxea . . . . . 943 76 24 40
- Asepeyo . . . . . 943 76 16 43
- Pakea . . . . . 943 76 13 49
- Angiozarko medikua . . . . 943 78 90 27
- Antzuolako medikua . . . . 943 76 62 23
- Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak . . . . . 943 76 19 50

- UDALA**
- Begarako Udaletxea . . . . 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea . . . 943 76 62 46
- Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32
- Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51
- Kultura etxea . . . . . 943 77 91 58
- Liburutegia . . . . . 943 77 91 62
- Kiroldegia . . . . . 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza . . . . 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia . . . . . 943 76 14 92
- Erregistroa . . . . . 943 76 13 15
- Jardun . . . . . 943 76 36 61
- Postetxea . . . . . 943 76 26 85
- Bedelkar . . . . . 943 76 04 68
- Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia . . . . . 943 76 44 53
- Begarako notariotza . . . . 943 76 10 73

**MEZAK**

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

**URBANOAK**

- San Lorentzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaure, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jaietxea.
- Labegaraieta/Olabarretetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaure, Martoko, San Antonio, Espolaga (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.



ATREBENTZIAEZPADA/ **Jardun elkarteak 15 urte beteko ditu. Badakizu zein lan egiten duen?**



FELIX TERRAZAS



NEREA SOTIL



IGONE ELORZA



JOSU ZABALA



ALAITZ ARANA



AGUSTIN MORCILLO

Inoiz entzun dut Jardun izena baina ziur ez dakit zertan jarduten duen. Gazteendako talde bat zela uste nuen, baina ez omen da hori bakarrik. Elkarteak antolatutako ekintzetan ez dut sekula parte hartu.

Badakit euskara elkarteak dela baina hortik aurrera ez dut Jardunen lana jarraitu. Umeek inoiz ekintzaren baten parte hartu dute; nik, berriz, ekintza interesatuz gero, ez dut begiratzeko zeinek antolatzen duen.

Bai, ezagutzen dut bere jarduna, besteak beste ikastaro asko antolatzen ditu. Ni neu elkarteko bazkidea naiz baina ez dut sekula ekintzetan parte hartu; egunen baten agian alaba bidaliko dut baina oraindik umea da.

Euskararekin zerikusia duen elkarteak dela badakit baina bere lan zehatzaren berri ez daukat. Noizbait baliteke parte hartzea Jardunek antolatutako ekintzetan, baina aurrez zer egiten duten jakin behar dut.

Prentsaren bidez eta kalean ipintzen dituzten kartelak ikusita jakiten dut zein gauza antolatzen dituen elkarteak. Jardun zer den ere jakin badakit, baina nik zuzenean ez dut parte hartu ekintzetan.

Jardunen euskaraz hitz egiten da eta, besteak beste, jolasak egiten dira. Nik parte hartzen dut aisialdiko ekintzetan, eta futbola gusatzeko zait gehien. Jolasetan euskaraz egiteko esaten digute Jardunen.

TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK APARKALEKUAK** Jaieran aparkaleku falta izaten dela eta bere kexa azaldu digu irakurle batek. "Matxiategiko aparkalekuak barrakendako lagatzea ongi dago; baina orain karabanak eta furgonetak Santa Marina osteko aparkalekuan ere aparkatzen dituzte eta gainontzeko autoendako ia ez dago lekurik", esan digu. /I.A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Sermolari"



—Aste santuan sermolarixak etortzen zien urtero.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

**“** Garai batean 30 bat bikotek parte hartzen zuten dantza solteko txapelketan, baina azken urteotan 15

bikote inguruk soilik eman dute izena. Goizean kanporaketa egiten zen, baina azkenaldian bikote guztiak parte hartzen dute goizeko eta arratsaldeko saioetan. Bai goizean eta bai arratsaldean trikitixa, fandangoa eta arin-arina dantzatzeko. Aurten dantza latinoen txapelketa antolatzea aberasgarria da. Zenbat eta dantzaren inguruko ekitaldi gehiago antolatu eta herritarren partaidetza handiagoa lortu, hobea. Bata bultzatzeagatik bestea baztertzea txarra litzateke, baina denontzako adina zale dagoela uste dut”

**JUAN MARI BASETA / Abarka elkarteak 'Berria' / 05-05-12**

BERAIEKDINOE/ Lander Juaristi



[www.juaristi.org](http://www.juaristi.org)

**A**rtikulu hau kaleratzen denerako 2005eko Bergarako Jaixak bukatuta egongo dira. Aurten ere, eta azken urteetako tendentzia jarraituz, jende gutxi ibili dela esango nuke. Jailetako alborotik ihes egiteko ohitura ez da berria, baina urtero gehiago antzematen dela esango nuke! Zeingo jau ba!

Baina tira! Egia esan aurtengo jaiek izan dute gauza polit eta berezirik: herri bazkarira 300 pertsona pasa joan ziren, aurreko urterean 80 ausartek bakarrik bazkaldu zutenean plazan; jende talde berri batek ere hartu du gauza berriak antolatzeko ardura eta giroan antzeman dela deritzot. Ea poliki-poliki jai parte-hartzaile eta sanoagoak antolatzen ditugun! Astelehena da eta herrian aspaldi ikusi gabeko giroa nabaritu dut, agian nire pajeoak eta jaiek eragin didaten neurona gabeziaren ondorio izango da, baina herri giroa antzeman dut... auskalo!

Dena den, jai hauek ere izan dute zerbait berezia maila pertsonalean; iragan dira urte dezente aitaren heriotzaz geroztik eta pasa den ostegunean aspaldiko ilusio bat errealitate gina ikusi nuen: Abdon Juaristiren erakusketa antologiko bat ikusteko aukera. Nahi beste obra ez,

**“Aspaldiko ilusio bat errealitate egin dut: Abdon Juaristiren erakusketa antologikoa ikusteko aukera”**

baina Bergaran daukagun lokal berria bete zen Juaristiren obrarekin. Bizitza oso bat, eboluzio bat artean islatua; obrarik zaharrenak berreskuratu dira oroi-menetik, azken garaiakoak berriro erakusketa gela bateko argira itzuli; eta hilabete honetan erakusketara gerturatuko den jendearen begiradek bizitza berria emango diete ehunei, jendeak ikusteko sortuak baitira guztiak.

Obrak, margoek, zentzu ezberdina izango dute, erakusketak gelan osotasun baten zati bilakatuko dira, urteetan zehar sakabanatuta eta pribatuan egon eta gero, artistaren puzzle historiko artistikoa osatuko dute! Eskerrak hau ahalbidetu eta posible egin duten guztiak!

HAUGIROA!

MINIMOA Astelehena, 16	<b>9 °C</b>
MAXIMOA Domeka, 15	<b>24 °C</b>
ASTEKO EURIA (l/m <sup>2</sup> )	<b>84,3 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 11	23 °C 10 °C 8,5 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 12	20 °C 13 °C 13,7 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 13	22 °C 14 °C 3,1 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 14	21 °C 11 °C - l/m <sup>2</sup>
Domeka, 15	24 °C 10 °C - l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 16	20 °C 9 °C 54,8 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 17	14 °C 11 °C 6,5 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: [berrigara@goiena.com](mailto:berrigara@goiena.com)

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Aintzane Irizar  
Irati Agirreazaldegi  
Oihana Elortza  
**MAKETAZIOA**  
Maitena Arana

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereizbar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
8.680 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a / 244. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Hamaika ikasle joango dira Bergarako Ipintza instituturara datorren kurtsoan

AINTZANE IRIZAR


Hamaika ikasle dihardute aurten Herri Ikastetxeko seigarren mailan. Bukatzeaz dagoena izango da euren azkeneko ikasturtea Antzuola-ko eskolan; datorren irailetik aurrera, Bergarara joan beharko dute, Ipintza instituturara, DBHko ikasketak egitera.

Andoni, Iñigo, Onintza, Eukene, Kepa, Mikel, Ane, Jone, Andoni, Jon eta Amaia, eskolako seigarren mailako ikasgelan topatu ditugu, Antton Biteri irakaslearekin. Datorren ikasturtean ikastetxe, irakasle eta ikaskide berriak izango dituzte. Bergarako Ipintza institutuan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak hasiko dituzte.

Lau ikasturteko ikasketak dira DBHkoak; gero, beste bi urtez, hala nahi dutenek, Batxilergoa ikasiko dute.

### BERGARARAKO PRESTAKETA

Jakinekkoa da Antzuolako ikasketak metodologia eta ebaluatze-ko era bereziak direla. Horregatik, DBHn ahalik eta ondoen molda daitezten, bereziki prestatzen



Aurten seigarren mailan dihardute ikasle hauek eta datorren ikasturtean Bergarako Ipintza instituturara joango dira.

dira ikasleak, seigarren mailan: gero izango dituzten antzeko azterketak jartzen zaizkie, Ipintzako irakasleak etortzen zaizkie azalpenak ematera, baita DBHn dabilen herriko ikasleren bat ere.

Duela 9 bat urte ezarri zuten DBH; garai hartan, ikasketak horiek Antzuolan jartzeko saioak egin zituzten eskolako arduradunek, baina, alferrik. Gutxienez, Bergaratik joan-eto-

ria egiteko, autobus berezia izaten dute antzuolar ikasleek, doan. Bergaran bazkaltzeko aukera ere badute; bazkaria ordaindu egin behar izaten dute, baina diru laguntzak badituzte.

### HERRITARREN HITZA / Jone Lete • Irakaslea

## Noren lana da gazteak heztea?

Azkenaldian Antzuolan gertatu diren gertakariekin kezkatuta nabil. Jakina da herrian norbaitzuk herriko materiala apurtu egin dutela. Baina ez naiz horretan sartuko, nahiz eta bidegabe-ria iruditu. Egin duenak jakin- go du zergatik egin duen; zer arrazoi daukan, arrazoirik baldin badauka, noski.

Baina hau ikusita, gaur egungo gazte eta gaztetxoek jokaeraren inguruan zer pentsatzen duten esango dut. Errespetu hitza ez dute ikasi edo ez daukate hitz horren atzean dagoen kulturaren berri.

Nik gaztetxoekin egiten dut lan asteburuetan; baina nire

lana ez da bakarrik gazte hauek heztea eta errespetua zer den erakustea. Hori etxean urte luzeetan zehar egin beharreko lana da. Astean hamar ordutan ezin da 15 urtetan lortu ez dena lortu, eta gutxiago, aurrez ezer egin gabe baldin badago.

Gaztetxo hauek bideratzea ez dakit noren lana izango den, baina lan hori euren etxeetatik hasi behar dela argi daukat. Gaur egun, guraso batzuek besteen esku lagatzen



**"Guraso askok besteen esku lagatzen dute lan zail hori"**

dela beste batzuen gain lan hori. Eskolaren eginbeharra da hori, besteek erakutsiko diote, kalean ikasiko du beste hura...

dute lan zail bezain garrantzitsu hori. Eskolak eta aisiak ezin dute bestelako laguntzarik gabe gauza askorik egin.

Haurrak gurasoenak dira eta beraiek jakin- go dute zer egin eta nola hezi beraien haurrak. Irakaslea eta aisialdiko begiralea naizen aldetik, zera ikusten dut: gaur egun, erraz lagatzen

Baina egia esan, denok dakigu edo jakin beharko genuke, etxean ikasten dela bizitzako zati handi bat, kultura bat eta bizitzeko modu bat, baita errespetua ere.

Ez dut guztia gurasoen gain lagatzerik nahi, ezta beraiei erru guztia botatzerik ere, baina, denon lana da haur eta gazte hauek heztea.

Beraz, egin dezagun hiru- esparruon artean elkarlana eta ez dezagun guztia esparru bakar baten gainean laga. Lan hau ondo egitea garrantzitsua da, etorkizuneko biztanleak daude eta jokoan. Etorkizun- rako benetan garrantzizko giza taldea, ez al da horrela?

### LABUR

#### Eskalatzera joateko irteera antolatu dute

Arrolak gaztetxoendako irteera antolatu du maiatzaren 29rako; Eginora joango dira, Arabara, eskalatzera. Oso paraje polita da, eta eskalatzera nahi ez duenarendako ere oso toki ederrak daude egoteko, paseatzeko eta jolaserako.

Irteera horretan parte hartu nahi dutenek, martitzenean, hilak 24, eman beharko dute izena, Arrolak Kalebarren duen egoitzan, ohiko ordutegian: 19:00etatik 20:00etara.

#### Kontzentrazioa antolatu du Gertu Gaek

Eguaztenean, hilak 25, bete- tzen dira bi urte udal hautes- kundeak egin zirenetik. "Apartheidaren bi urteak salatzeko egingo dugu eguaztene- ko kontzentrazioa", adierazi digute Gertu Gaeko arduradun- nek. 19:00etan egingo dute kale agerraldia, plazan.

#### Mendizabalek aurrera jarraitzen du Lau t'erdikoan

Elgetako Lau t'erdiko txapel- ketan dihardu Aitor Mendizabal pilotari antzuolarrak.

Aurreko asteburuan Lan- dabururi 22 eta 13 irabazi zituen; horrela, final zortzirenetara- ko sailkatu da Aitor. Domekan dauka hurrengo partidua Elgetan.

#### Gurutz Larreak ondo jarraitzen du denboraldia

Erregularitasunaren saria merezi du Gurutzek. Astebu- ruan jokaturako bi lasterke- tetan, hamar lehenengoan artean sailkatu zen. Oñatin, bederatzigarren egin zuen; Mutrikun, berriz, hamarga- rren sailkatu zen.

ELKARRIZKETA

MANUELA GHEVIO/ARTISAUA

“Lore sikuez gain, xaboi naturalak ere egiten ditugu”

A.I.  
**O**raingo asteburuan Erdi Aroko Azoka egingo dute Ordizian. Hantxe egongo da Manuela, bere produktuekin. Urteak daramatzate Txerrak eta bieki lore sikuak lantzen, eta orain, xaboi naturalak ere ekoizten dituzte.

**Asteburuan Ordiziako Erdi Aroko azokan parte hartuko duzu.**

Bai; lore sikuekin hasi ginen orain dela sei bat urte, baina, gaur egun, xaboi naturalak ere egiten ditugu. Ordiziako azokan, jendearen aurrean egingo dut xaboi eta ikusleei azalduko diet zelan egiten ditugun saltzen ditugun xaboiak.

**Zelan egiten dituzue xaboiak?**

Landare olio berriekin, birziklatu gabeko olioekin egiten ditugu; erle argizaria eta kokoa-oren olio ere izaten dute xaboiak. Horretaz gain, belarrak, frutak eta barazkiak erabiltzen ditugu. Ahal dugun neurrian, gainera, nekazaritza ekologikoko produktuak

eskuratzen saiatzen gara xaboiak egiteko.

**Zergatik hasi zarete xaboiak ere egiten?**

Belar eta lore sikuen esparrua oso polita eta interesgarria da, baina oso produktu garestiak dira. Gainera, apaingarriak bakarrik dira. Xaboiak, berriz, beste aukera batzuk ematen dizkizute; batetik, produktu merkeagoa delako, eta bestetik, egunero erabiltzen den zerbait delako.

**Artisauen bizimodua ez da erraza izango; zaila izango da hortik bizimodua ateratzea, ezta?**

Bai, oso zaila da; orain, gainera, Txinatik geroago eta produktu gehiago eta hobeak datoz. Oso merke ekoizten dute han, eta

kompetentzia handia egiten digute. Dena dela, nik ez dut ezertxo ere txinatarren aurka, haiek ere bizimodua ateratzeko eskubide osoa dute.

Artisautza produktu errentagarriak egiteko hainbat baldintza bete behar ditu, nire ustez, produktuak: ekonomikoki eskuragarria izatea, orijinala, jende askorendako modukoa eta, era berean, bakarra.

**Jendeak enkarguak ere egiten dizkizu?**

Bai, herritarrek egiten dizkigute enkarguak; baina dendek eta profesionalak ez. Inoiz suertatu izan da kasuren bat, baina, oro har, partikularren enkarguak jasotzen ditugu. Dena dela, azokak izaten dira guretako saltzeko tokirik onenak.

**Zelan lan egiten duzu? Loreak zeuk batzen dituzu, erosi egiten dituzu...**

Belar eta lore asko geuk batzen ditugu, mendian; baina, beste asko erosi egin behar izaten ditugu. Izan ere, lore eta belar sail handiak eduki ezean, ezinezkoa da egiten ditugun lan guztiak egitea hemen, mendian, batutakoekin.



ARGAZKILARIA XXXXXXXXXXXXX

*“Lore eta belar asko geuk batzen ditugu, mendian; beste asko, berriz, erosi egin behar izaten ditugu”*

KIROLA

Kadeteek kopako finalaurrekoa dute

A.I.  
Kadete mailako futbol taldeak kopako finalerdiko partidua jokatuko du domekan. Estalan izango da partidu hori, Beraun taldearen aurka, 12:00etan. Partidu hori irabazten badute, finalerako sailkatuko dira antzuolarrak.

**FINALERAKO AUTOBUSA**

Antzuola Kirol Elkarteak autobusa antolatu du gazte mailako taldearen finala ikustera joateko. Bihar, zapatua, 15:45ean plazatik

irtengo da. Izena emateko epea bukatu den arren, baliteke oraindik tokiren bat egotea.

Ligako finala Idiazabalen jokatuko dute antzuolarrek Donostiako Ekintza taldearen aurka. Finala partidu bakarrean jokatuko denez, zelai neutralean izango da partidu hori.

Aipatzekoa da, bestalde, infantilek gonbidapen berezia jaso dutela; Realak Zubietara gonbidatu ditu, txapelketa baten parte hartzera. Hil honen 29an izango da hori.



ARTXIBOA

Kadeteek finalerako sailkatzeko aukera dute domeka eguerdian.

KIROLA

PARTIDUAK

**FUTBOLA**

Maiatzak 22 (Finalaurrekoa)  
12:00: Antzuola-Beraun (Kadeteak)

**PILOTA**

Maiatzak 20 (Deba Arroko txap.)  
20:00: Olalde-Elgoibar (Nagusiak)

EMAITZAK

**FUTBOLA**

Kostkas 6 Antzuola 1 (Gazteak)  
Antzuola 3 Beti Ona 1 (Kadeteak)

**PILOTA**

Deba Arroko txapelketa  
Oialde-Eskoriatza (Kadeteak) . . . 22-15  
Arrasate-Oialde (Nagusiak) . . . . . 22-2

**EGANA**  
Era guztietako arotz lanak  
Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak  
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**LEKY-BERRI MERENDEROA**  
Janariak eta edariak  
Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

DEKORAZIOA  
**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK  
Jose Gomez Abad  
Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19  
INDUSTRI MANTENIMENDUA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko maiatzaren 20a / 227. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Iraunkortasun foroaren hirugarren bilera eguen iluntzean izango da

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Tokiko Agenda 21 proiektuaren baitan iraunkortasun foroa sortu dute Elgetan. Eztabaida talde bat da hau eta bere helburua da hainbat gai lantzea garapen iraunkorra oinarritzat hartuta. Talde honek bi batzar egin ditu eta hirugarrena datorren egunean izango da.**

Debagoieneko Udalek, Mankomunitatearekin elkarlanean, herrien garapen ekonomiko eta soziala ingurumenaren babesa eta errespetuarekin bateratzeko konpromisoa hartu dute.

Garapen iraunkorrean oinarritutako etorkizuna posible egiteko, herrietan Tokiko Agenda 21 prozesua jarri dute abian.

Elgetan, lan horretan jardungo duen talde bat elkartu eta iraunkortasun foroa eratuta bi batzar egin dituzte. Lehenengoa proiektua aurkeztu zuten eta lan ildoak zehaztu zituzten; bigarrenean, berriz, hainbat gai eztabaidatzeko aukera izan zuten.

### LAN TALDE ZABALA

Tokiko Agenda 21 programan 13 lagunekoa talde batek dihardu lanean. Udaleko zinegotziek, Maya Ingurumen Taldeak, Guraso Elkarteak, Herri Eskolak, Euskal Herriaren Euskarazek eta hainbat enpresatarik ordezkariek osatu dute taldea.

Talde horretan Elgetak, herri bezala, hainbat arlotan dituen sendotasunak, ahultasunak, mehatxuak eta aukerak ikustea da helburua.

Behin horiek zehaztuta, indartu beharreko puntuak eta konponbidea behar dutenak zein diren adostuko dute, horrela, herriaren garapen iraunkorra ziurtatzeko bideak zabalduz.

Bi batzarretan hainbat gairen gainean egin dute berba: saneamendua, industria, lehenengo sektorea eta etxebizitza izan dira, besteak beste, hizketarako gaiak.

Hurrengo, batzarretarako gai zerrenda bat egin dute eta pizkanaka hauek izango dira eztabaida sortuko duten arloak: garraioa eta mugikortasuna, tele-



GOIBEKOKALE

Ingurumenarekiko errespetuaren gainean sentsibilizazioa sortzea da Aste Berdearen helburuetariko bat.

*Taldea herriko hainbat elkartetako kideek eta zinegotziek osatu dute, besteak beste*

komunikazioa, kutsadura, turismoa, euskara, errepideak, hiritgintza, inmigrazioa, biztanleria zahartzea, ekonomia, herriko zerbitzuak eta alde zaharraren egoera, besteak beste.

Eztabaiden ostean, ekintza plana diseinatuko dute, eta gero gai bakoitzaren gainean neurriak hartu beharko dira herrian.

Hurrengo batzarra maiatzaren 26an egingo dute 19:00etan, udaletxean. Bertan, taldeko kideak eta Tokiko Agenda 21 egitasumoko teknikaria izango dira.

### ASTE BERDEA

Ingurumenarekiko errespetua da Tokiko Agenda 21 egitasumoren oinarrietako bat eta, hain zuzen ere, ingurumenaren gainean sentsibilizazioa sortzea da Aste Berdearen helburuetariko bat. "Kontuan hartuta Euskal Herrian 180 udalerrri baino gehiago daudela Tokiko Agenda 21eko prozesuetan murgilduta eta herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea udala dela, funtsezkoa da udalek Aste Berdean parte hartzea.

Aurtengo Aste Berderako aurreikuspenen arabera, 100 udalek baino gehiagok esku hartuko dute, eta 200 jardueratik gora antolatuko dituzte guztira", diote Ingurumen Jarduerarako elkarte publikoko arduradunek.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitasumoa da Aste Ber-

*Aste Berdean zakar bilketa eta marrazkiak egingo dituzte eskolako umeek*

dea eta herriek ere parte hartzen dute bertan. Aurten maiatzaren 30etik ekainaren 5era bitartean egingo da eta Elgetan ere hainbat ekintza antolatu dituzte.

Ekainaren 1ean eskolako umeek zabor bilketa egingo dute eurak ibiltzen diren inguruetan. Ekainaren 2an, berriz, ingurumena gaitzat hartuta marrazkiak egingo dituzte eta plazan ipiniko dituzte ikusgai. Azkenik, aste horretan bertan Patxi Monteroren hitzaldia egongo dela ere iragarri digute.

### LABUR

#### Erdi Aroko mozorroak jaietako lehen egunean

Azoka Nagusiko jai egitaraua gertatzen dihardute, eta dagoeneko gauza gehienak lotuta daude. Besteak beste, jakinarazi digute zein izango den jaietako lehen egunean mozorrotzeko aukeratu duten gaia: Erdi aroa. Ekainaren 30ean, beraz, Erdi Arokoak bezalako arropak jantzita kalera ateratzeko deia egiten dute Jai batzordekoek.

#### Ozkarbi eguna ospatuko dute bazkideek domekan

Ozkarbi elkarteak, azken urteotan egin duen moduan, aurten ere Ozkarbi eguna ospatuko du. Domekan, maiatzaren 22an, izango da ospakizuna. Bazkariaren aurretik txikiteoa egingo dute soinu joleekin eta ondoren, 14:30ean, bazkideak elkartuko dira bazkaltzeko elkartean bertan. Bazkal ostean, berriz, dantzarako aukerarik ez da faltako, soinu jole batek ipiniko baitu musika.

#### Kinto bazkaria egingo dute 1940an jaiotakoek

Zapatuan, kinto bazkaria egingo dute 1940an jaio eta aurten 65 urte beteko dituzten elgetarrek. Antolatzaileek jakinarazi dute 14:30ean elkartuko direla Azpeitxi jatetxean bazkaria egiteko.

#### 'El mito de Bourne' zineklubeko hurrengo filma

Eguaztenero izaten dira film emanaldiak Espaloian 21:30ean. Hurrengoa *El mito de Bourne* akziozko filma izango da eta maiatzaren 25ean emango dute. Ekainean beste bost film izango dira Espaloiko zineklubean.

KULTURA

# Rogelio Botanz eta Alfonso Sastre gaur, eta Eskifaia abesbatza bihar, Espaloian

I.A.

**Gaur, barikua, Rogelio Botanzek eta Alfonso Sastrek emanaldia eskainiko dute. Bihar, berriz, Hondarribiko Eskifaia abesbatzaren saioa izango da. Bi musika ekitaldi, entzuteko aukera izango da, beraz, asteburuan, Espaloia Kafe Antzokian.**

Lehenengo hilaren 22an egitekoa zen Rogelio Botanz eta Alfonso Sastren emanaldia, baina antolatzaileek esan digute, gaur, barikua izango dela kontzertu eguna, eta ordua 22:30ak.

Rogelio Botanz canta a Alfonso Sastre lana kaleratu zuten Gaztelupeko Hotsak zigiluarekin eta lan horretan oinarritutako emanaldia izango da gaurkoa. Lanean, kantariak Sastren poemekin egindako 13 kantu jaso ditu, eta idazleak bere testuetako sei irakurri ditu. Emanaldian ere irakurketa eta kantuak tartekatuko dituzte.

Sastrek eta Botanzek kasualitatez ezagutu zuten elkar duela 25 urte. Beraz, urte luzetako lana-

ren ondorio da diskoa. Duela 25 urte eginiko kantuak, urte haue-tan sortutakoak eta berriak uztartzen ditu.

Emanaldirako sarrerek 8 euro balio dute eta 6 euro ordaindu beharko dituzte bazkideek.


**ABESBATZA**

Bestalde, bihar, zapatua, Udalak antolatutako musika saioa izango da Espaloian.

Hondarribiko Eskifaia abesbatzak emanaldia eskainiko du. Gorka Aierberen zuzendaritzapean 13 kanta abestuko ditu hainbat jaialdi garrantzitsutan jardundako abesbatza honek.

Saioa 22:30ean hasiko da eta sarrera doakoa da.

*Irakurketa eta kantuak tartekatuko dituzte Botanzek eta Sastrek gaurko emanaldian*




Sastre Kuba eta Mexikotik etorri berria da; Botanz Kanariar irletatik dator.

LABUR

## Pello Alberdiren margo erakusketa Espaloian

Pello Alberdi margolariak erakusketa zabaldu du asteon bere margo lanekin Espaloian. Hiri paisaietatik abiatuta irudimen handiko konposizioak egiten ditu Alberdik. Orain dela gutxi Gasteizen eta Bergaran izan dira ikusgai bere lanak, baina erakusketak bisitatzeko aukerarik izan ez duteneko Alberdiren lanak ekainaren 9ra bitartean izango dira Espaloian. Kafe Antzokian honen ostean ikusgai izango den erakusketa Joaquin Rodriguezen margo lanea izango da eta ekainaren 15ean ipiniko dute.



HERRITARRENHITZA/ Ana Gillegi · Kazetaria

## Zer jan, hura izan

Hainbat bider irakurri eta hausnartu dudana gait bat da. Produktuen jatorria, hango edo hemengo baratzetan jasotako tratamendua... Gero eta gehiago arduratzen naiz jaten duguna osasuntsua ote den jakiteaz. Sarritan esan ditut gisa honetako esaldiak: "hau ez bada zer jango dugu ba? badakigu dena kutsatua dagoela...". Mesede bat egin diot nire poltsikoari dudatan nengoenean ez nituelako kontsumitzen, eta ziur nago nire osasunari ere baietz.

Horrelako gorabeheretan denbora luzea pasatu dut eta azkenean tokitxo bat aurkitu

dut, non saltzen diren gaiek garrantia bat baduten. Produktu ekologikoez ari naiz.

Pozik nago aukera osasuntsu baten bidean inguruko hainbat nekazari eta produktorek urteak daramatzatelako lan honetan. Angiozarren, Bergaran, Antzulan... baratza ekologikoak; Gatzagan ogi ekologiko ederra; Aian oilaskoak; Araban ardoak... ez nuen espero



**"Gero eta gehiago arduratzen nau jatekoa osasuntsua den jakiteak"**

hainbeste produktu ekologiko aurkitzerik gure inguruan.

Prezioz garestiagoak dira, baina freskotasuna askoz ere denbora luzeagoan mantentzen da; zaporea, probatzea baino ez dago. Eta honi guztiari nekazari eta produktore hauek ingurugiroari egiten dioten onura

gehituz gero, denok irabazten dugu.

Inguruko herrialdeetara irteten bagara, irten eta ikusi

beharra dago, hemen ez dago eta unibertsoaren zentroa, ohartuko gara zenbat denda txikitzen eta baita zenbat merkatal gune handitan ere, produktu ekologikoak tokia hartuz doazen: baratze produktuak, haragia, olioak, zekaleak, edariak...

Interes honen lekuko dira azken hilabeteetan Maia elkarteak Elgetan antolatu dituen ikastaroak baratze ekologikoen inguruan. Bertan izan direnek gauza ugari ikasiko zuten, baina batez ere posible dela hainbeste produktu kimiko gabe (besteak beste) baratze osasuntsu bat izatea.

KIROLA

PARTIDUAK

**ARETO FUTBOL TXAPELKETA**  
Maiatzak 21  
15:00: Maccabi-Isspro . . . . . Vicios  
16:00: Vicios-Fuxion . . . . . Maccabi  
17:00: Txapela-Makanaki . . . . . Añiketan  
18:00: La Kokotxa-Añiketan . . Txapela

**PILOTA**  
Maiatzak 20  
21:00: Errea-Irureta (23 urtez azpikoak)  
Gero: Beitia-Renobales (23 urtez azpikoak)  
Gero: Olaetxea-Olaetxabal (23 urtez azpikoak)  
Gero: Elurbe-Jauregi (23 urtez azpikoak)

Maiatzak 22  
10:45: Peñas-Albarado (Kadeteak)  
Gero: Urrutikoetxea-Berrueta (Kadeteak)  
Gero: Ezkurdi-Martin (Kadeteak)  
Gero: Mendizabal-Iraola (Kadeteak)  
Gero: Madariaga-Jaka (Kadeteak)

**JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA**

TEL.: 943 76 92 71

Goibekokale

**Aperribay, s.l.**

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g. Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA



**RECYDE, S.A.**

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

# Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 20a / 7. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

## Iparraldeko Oñatin astea izango da hurrengoa

OIHANA ELORTZA

Iparraldeko lagunekin batera antolatu dute Iparraldea Oñatin astea Laixan elkarteak eta udalak. Eguaztenetik zapatara antolatu dituzte ekitaldiak eta batuko duten dirua Iparraldeko Euskal Irratiarendako izango da.

Iparraldeko lagunekin batera antolatu dituzte datorren asteko ekitaldiak eta lagun asko datoz handik. Adibidez, Azika txo-txongilo taldeak ikuskizuna egingo du herriko umeendako. Paxkal Indo eta Aitor Arregi zinegileak pelikula emanaldian egongo dira eta komentatu egingo dituzte Orson Wellsen *Munduan zehar*, Saffy Nebouren *Bertzea* eta Paxkal Indoren *Sormenaren sua* pelikulak. Uztaritzeko Kolpe-K taldeak Oñatiko Malenkonia taldearekin joko du.

### ZAPATUKO JAIALDIA

Zapatuko jaialdirako autobusean datoz Amikuzeko joaldunak, Ezpeletako fanfarrea, Colina eta Arzallus bertsolariak, Beltzeria ikuskizuneko kideak, Maddi



HIRU TRUKU

Debagoieneko lehen kontzertua emango du Oñatin Hiru Trukuk.

*Ekitaldietan  
batutako dirua  
Iparraldeko  
irradiendako da*

Oihenart eta beste hainbat lagun, eta barrikada sinbolikoarekin egingo zaie harrera. Jatekoa eta edatekoa egongo da plazan eta musika, dantza eta ikuskizunak ere ez dira faltako. Gaueko kontzerturako, Hiru Truku, Etxartarrak eta Maddi Oihenart datoz.

### ASISKO URMENETA/KOMIKILARIA

*“Performance bitxia da gure ikuskizuna: bi antzezle eta zuzeneko marrazkiak uztartzen ditu”*

#### Nortzuk zarete Beltzeria & Cia?

Beltzeriak da Antton Lukuren antzezlari berriaren izena. Konpainiakoak, berriz, Mattin Irigoien, Marko Armspach eta ni neu. Mattinek esketak egiten ditu eta beste biok, Markok eta nik, marrazkiak.

#### Nolako ikuskizuna da Beltzeria & Cia? Zer egiten duzue?

Antton Luku eta Mattin Irigoienen bakarriketetan oinarritzen da ikuskizuna. Lagun batzuek antzeztu egiten dituzte eta beste batzuek marrazkiak egiten ditugu jendaurrean.


#### Nolako ikuskizuna prestatu duzue Oñatirako?

Performance bitxia: bi antzezle uztartzen ditu eta gainera, marrazketa du zuzenean.

#### Zer ikusiko du Gaztelekura joaten denak?

Inprobisazioarekin jokatzeko dugu eta ez dakit zer ikusiko duten. Entzun, ordea, aktoreen hitzezko bonbak entzungo dituzte: hizkuntza, komunikazio falta, ekologia ...

**Boluntariorik behar duzue?**  
Ikuslearen baitan zerbait mugiarazi nahiko dugu, bai.



### ERAKUSKETA

## Beldurraren aretoa zabalik umeendako

O.E.

*Adur, adur ez naiz hire beldur* da erakusketa bitxi honen izena eta bi helburu ditu: batetik umeak liburuak irakurtzera bultzatu nahi ditu eta bestetik, literaturan beldurra nola agertzen den eta beldurrari nola aurre egin erakustea umei.

Juan Kruz Igerabideren *Jonas eta hozkailu beldurtia* liburuan oinarritzen da erakusketa. Kul-

tura-etxeke erakusketa gelak sukalde baten itxura du orain. Umeek sukaldeko etxetresnak zabaltzen dituzte eta ikuzgailuak, adibidez, zarata arraroak ateratzen dituela konturatzen dira, hozkailuan begiak eta arratoiak gordetzen dituztela. Modu honetara umei erakutsi nahi zaie beldurra uxatzen.

Galtzagorri elkarteak ekarri du erakusketa udal liburutegiarekin batera, hilaren 27a arte.



Sukalde itxura dauka beldurraren aretoa.

### LABUR

#### Potemkin, bizikleta zeharkaldia eta 'Ixa' antzezlana gaurtik Errekaldeko jaietan

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Errekaldeko jaiak. Arratsaldean etxafuegoak botako dituzte eta gauean, berriz, kontzertua egongo da Errekaldeko plazatxoan. Hiru taldek joko dute: Potemkin, Porretas eta Nuevo Catecismo Católico. Zapaturako bizikleta zeharkaldia, umeendako herri-kirolak, arku tiroa eta erromeria iragarri dute, besteak beste. Domekan, auzo bazkaria, Oñatz dantza taldea eta Hika taldearen *Ixa* antzezlana. Araotzen ere jaiak dira asteburuan.

#### Domeka goizean egingo dute arrantza txapelketa San Pedrotik Olaterara bitartean


Etzi, domeka, egingo dute arrantza txapelketa. Aurten ere Arrantzazu errekan egingo dute. Txapelketa goizeko 09:00etan hasiko dute San Pedron eta handik Olaterara bitartean egin beharko dute arrantza. 12:00etan bukatuko da txapelketa. Ez dago baldintzarik txapelketan parte hartzeko baina izena eman behar da Alzu dendan; gaur, egubakoitza, da azken eguna. Oparia izango dute arrantzaleek eta hamarretakoa San Pedrorra hurbiltzen diren guztiek.

# UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30


**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxe: 943 76 08 04

# ORTO+LAGUN

O R T O P E D I A



330 €



25€



91,65€



*Osakidetzarekin, Lagun-Arorekin  
eta Fremapekin hitzartua*

maiatzean eta ekainean

# 2x1



**12.000**  
Plaza Bakarrik

**8.000 GELDITZEN DIRA!**

## BIDAIA-LAGUNA DOAN

Konpara ezazu prezioa - konpara ezazu kalitatea

### KANARIAK 8 egun / 7 gau MAIATZA ETA EKAINA

		1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
<b>TENERIFE</b>			
VALLELUZ APTU. 2LL	OB	366€	DOAN
CHIMISAY H. ***	HG	420€	DOAN
PALMERAS PLAYA APTU. 3LL	ME	548€	DOAN
TURQUESA PLAYA G.H. ****	HG	602€	DOAN
PLAYACANARIA H. ****	HG	626€	DOAN
BONANZA PALACE H. ****	ME	722€	DOAN
<b>TENERIFE HEGOALDEA</b>			
TENERIFE GOLF H. ****	ME	536€	DOAN
EST. GREEN PARK 3LL	ME	548€	DOAN
AGUAMARINA GOLF H. ****	HG	578€	DOAN
<b>LANZAROTE</b>			
EST. SOL MORROMAR 3LL	ME	502€	DOAN
RIOSOL APTU. 2LL	GB	660€	DOAN
BEATRIZ COSTA H. ****	ME	666€	DOAN
PARADISE ISLAND H. ***	GB	778€	DOAN
MARINAS CLUB RESORT H. ****	GB	786€	DOAN
<b>GRAN CANARIA</b>			
CONCORDE H. ****	ME	746€	DOAN
MELIÁ TAMARINDOS H. ****	HG	840€	DOAN

### MALLORCA 8 egun / 7 gau MAIATZA EKAINA

		1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
SAGA H. **	ME	420€	DOAN	428€	DOAN
SOL MASTINES/CHIHUAHUAS H. ***	ME	476€	DOAN	532€	DOAN
RIU BALI H. ***	ME	562€	DOAN	622€	DOAN
ILLETAS H. ****	ME	632€	DOAN	710€	DOAN
RIU BONANZA PARK H. ****	ME	640€	DOAN	748€	DOAN
RIU PLAYA CALA MILLOR H. ****	ME	686€	DOAN	754€	DOAN
RIU PLAYA PARK H. ***	GB	704€	DOAN	774€	DOAN
DELTA H. ****	ME	744€	DOAN	774€	DOAN
RIU CAMP DE MAR H. ****	ME	806€	DOAN	856€	DOAN

### DOMINIKAR E. 9 egun / 7 gau MAIATZA EKAINA

		1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
<b>PUNTA CANA</b>					
OFERTA RIU ****	GB	900€	DOAN	1.038€	DOAN
NATURA PARK H. ****	GB	984€	DOAN	1.134€	DOAN
RIU TAINO H. ****	GB	1.164€	DOAN	1.164€	DOAN
FIESTA BEACH H. ****	GB	1.164€	DOAN	1.164€	DOAN
<b>LA ROMANA</b>					
SANTANA BEACH H. ****	GB	1.174€	DOAN	1.174€	DOAN
<b>PUERTO PLATA</b>					
RIU MAMBO H. ****	GB			1.090€	DOAN

### MEXIKO 9 egun / 7 gau MAIATZA EKAINA

		1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
<b>CANCÚN</b>					
RIU CANCÚN H. ****	GB	1.340€	DOAN	1.340€	DOAN
<b>RIVIERA MAYA</b>					
CARACOL VILLAGE H. ****	GB	1.198€	DOAN	1.198€	DOAN
RIU LUPITA H. ****	GB	1.228€	DOAN	1.228€	DOAN
RIU TEQUILA H. ****	GB	1.352€	DOAN	1.352€	DOAN

### KUBA 9 egun / 7 gau MAIATZA EKAINA

		1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA	1º PERTS.	BIDAIA-LAGUNA
<b>LA HABANA</b>					
COPACABANA H. ****	HG	906€	DOAN	906€	DOAN
GRAN CARIBE PLAZA H. ****	HG	942€	DOAN	942€	DOAN
GRAN CARIBE INGLATERRA H. ****	HG	1.022€	DOAN	1.022€	DOAN
TRYP HABANA LIBRE H. ****	HG	1.214€	DOAN	1.214€	DOAN
<b>VARADERO</b>					
RIU LAS MORLAS H. ****	GB	1.180€	DOAN	1.180€	DOAN

## 2x1 KOSTAK

8 EGUN / 7 GAU  
BIDAIA-LAGUNA DOAN

Costa Brava · Costa Daurada · Costa de Azahar eta Valentzia · Costa Blanca · Costa de Almeria · Costa Tropical · Costa del Sol · Costa de la Luz

**IRTEERAK BILBOTIK**

Irteerak Bilbotik, Kariberakoak izan ezik (hauek Madrildik). Prezioak bi pertsonentzat dira, logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean, Maiatza eta ekaineko Irteera zehatzentzat bakarrik. Erregaien igoera, tasak, bisa eta gestio gastuak ez daude barne. Erregimena: OB: Ostatur Bakarrik; HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu Erdia; MO: Mantenu Osoa eta GB: Guztia Barne. PLAZA MUGATUAK.

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGITEN DUGU

# VIAJES IBERIA

902 108 108

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

viajesiberia.com

BAL-001-M/M